

DEFINIZIOA

Norberak JARDUEREI ekitea, helburuak lortzeko, emaitzak hobetzeko, arazoak ekiditeko eta IRTENBIDE berriak aurkitzeko.

EGOERA PRAKTIKOAK

Enplegua
bilatzea
norberaren kabuz
besteren kontura



AINTZANEK, telekomunikazioetako ikasketak amaitu eta berehala lehentasuna eman dio, lan merkatuaren testuinguruan, sektorearen joerak aztertu eta ezagutzeari, lanbidearen benetako ikuspegia izateko. Horretarako, ezer baino lehen, bere lanbidearekin zerikusia duten argitalpenak irakurri eta aztertzeari ekin dio. Lan plana prestatu du, telekomunikazioetako enpresa guztiekin telefono/telematika bidez nahiz zuzenean harremanetan jarri da, sektore barruan, eskerik handiena duen soslai profesionala zein den jakiteko. Inguruko pertsona guztiekin bilaketan laguntzeko informaziorik eskura diezaioketen galdetu die. Honela kontaktu batzuek lortu ditu, eta enplegurik lortu ez duen arren, informazio erabakigarria eta beste kontaktu batzuek ekarri dizkiote. Bat baino egitasmo gehiago taitutzea erabaki du, aurkezteko modu egokia izan baitaiteke. Badaki bidea luzea dena, baina gauza asko otu zaizkio.

Enplegua



MIKELi zuzendaritzaren aintzatespena azaldu diote, aukera ugaritan adierazitako ekimenengatik: hainbat hobekuntza ekarri dituen protokoloaren aldaketa, bere zerbitzuko arduraduna ez zegoenean sortu zen arazoa zuzenean eta eraginkortasunez konpontzea, eta foro profesionaletan integratu eta aktiboki parte hartzea.

Beste
alor batzuk



MAITE, herriko andere elkartekide aktiboa, elkarteko andereak ez dakitela ohartu da bizitza osasungarrirako azturak izateak beren bizi-kalitateei on egingo liekeela. Hori horrela, informazioa jaso, gaian adituak diren profesionalen harremanetan jarri, egutegia prestatu eta horrekin guztiarekin osasun jardunaldiak prestatu ditu. Sekulako arrakasta izan dute.

GOGOAN
IZAN

- ▶ Zirkunstantzien GORA-BEHEREN MENDE egoteak eta arazoei aurrea hartu baino aurre eginez ibili beharrak, gehienetan, egoeren esku egotera garamatza.
- ▶ Ez al da hobe arazoak AURREIKUSTEA, haiek noiz etorriko zain egotea baino? eta gertatzen ez badira? edo, nahi ez ditugunak gertatuko balira?
- ▶ EKITEAK gure helburuak lortzeko aukerak ugaritzen ditu, eta nahi ez duguna gertatzeko arriskua urritzen.



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Fondoa

 **inguralde**

BARAKALDOKO UDAL GORENA Euzko Lehen
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO